

# JAVIER PEREZ ROYO

SEVILLAKO UNIBERTSITATEKO KONSTITUZIO ZUZENBIDEKO KATEDRADUNA

## «Batasuna bertan behera uzten duen autoan prebarikazioa dago»

Batasuna legez kanpo uzteko Garzon epaileak plazaratutako autoak eta Alderdien Legea Espainiako Konstituzioaren aurkakoak direla eta legeriatik at daudela adierazi du Javier Perez Royok sarritan. Irizpide horien argudioak eta xehetasunak zehaztu dizkigu.

Kristina Berasain | IRUÑEA

Zilegitasun demokratikoaren mugak leloko jardunaldian aritu zen hizketan Javier Perez Royo Zuzenbide Konstituzionaleko katedraduna Iruñean. Gune Gogoak elkarteak antolatutako hitzaldia eta horren aurretik solastatu zen EGUNKARIA berarekin.

■ **Memento honetan bide banatik doazen bi prozedura daude zabalik Batasunaren aurka. Bata Alderdien Legea, bide zibila, eta bertzea Baltasar Garzon epaileak irekitakoa, bide penala. Kasualitatea al da biak kasik aldi berean martxan jarri izana?**

Asmoak epaitu beharko lirateke bi bideak aldi berean zergatik abiatu diren ikertzeko. Zergatik erabaki du Auzitegi Nazionalako 5. instrukzio epaitegiko arduradunak —Baltasar Garzon epaileak— bide penalarik ekitea behin Alderdien Legea indarrean sartuta? Ez dakigu, baina deigarria eta harrigarria bada. Gainera, bi prozesuak, presaka, azkarregi jarri dira martxan, eta hori ez da ona izaten justiziaren administrazioan. Bakoitzak atara ditzala ondorioak.

■ **Batasunak Santa Polako hilketa ez deitoratzearekin batera etorri zen Alderdien Legea. Zure iritziz, Batasunak ez gaitzesteko eskubidea dauka?**

Hala da, eta horregatik jarri bada abian legea, astakeria da. Batasunaren jarrera moraliki higuigarria bazaizu ere, ez gaitzesteko eskubide konstituzionala dauka. Isilik egoteko eskubidea edonork dauka, baita kriminal zitalenak ere. Askatasun ideologikoarena Konstituzioaren 16. artikulua jasotzen du, eta kasik mugarik gabe jasotzen du eskubide hori.

■ **Garzonen autoa ez omen da legearen arabera.**

Ezin da Batasuna bertan behera utzi alderdikideen ardura penala frogatzen ez den bitartean. Memento honetan Batasuneko buruzagi bakar bat ere, ezta Mahai Nazionalako kide bakar bat ere, ez dago inputatua. Arnaldo

Otegi beste edozein herritaren egoeran dago. Beraz, nire ustez, hartu den erabakia ez du jasotzen legeak; legetik at dago. Gainera, Auzitegiak berak berriki kaleratu duen auto batean, nolabait, zalantzan jartzen da autoaren baliagarritasuna. Esaten du inoiz norbait inputatu beharko dela. Dena den, ez da ausartu gauzak garbiago esaten; izan ere, horrek Batasuneko egoitzak irekitzea ekarriko luke eta, jakina, horrek egundoko zalaparta sortuko luke.

■ **Manifestazio eskubidea ere urratu egin al da?**

Kasu honetan ez da Zigor Kodearen artikuluen interpretazio desegokia egin bakarrik; kasu honetan ez dago inolako oinarri legalik. Instrukzio epaile batek ezin du ezer esan horren aurka. Legeriak esaten dion gauza bakarra isilik egoteko da. Eta are oinarri gutxiago du talde parlamentarioak desegiteko orduan. Alderdi baten desegiteak ez dakar, inondik inora, talde parlamentarioa desegitea. Ezjakintasun handia dago. Arautegi parlamentarioak horrelakorik jasoko balu, Konstituzioaren aurkako litzateke.

■ **Azken autoan garbiketa etnikoaren afera aipatzen da.**

Hori burugabekeriaren burugabekeria da. Horrek ez du ez hanka eta ez bururik.

■ **Eusko Jaurlaritzak Garzon epailearen kontrako kereila bat aurkeztu berri du, prebarikazioagatik.**

Manifestatzeko eskubidearen urraketa eta talde parlamentarioen desegitea jasotzen duten autoetan argi dago prebarikazio delitua dagoela. Zilegitasun demokratikoaren printzipioa urratu du Garzonek, hau da, bere borondatea orokorraren gainetik jarri du. Formalki estatuaren botere gisa jardun da, baina materialki pertsona pribatu gisa aritu da, eta hori prebarikazio delitua da. Baliteke jakinaren gainean egin izana, eta hori da larriena, edo jakin gabe egin izana. Baina bi kasuetan prebarikazioa dago eta biak jasotzen dira Zigor Kodean. Batasuna bertan behera uzten duen autoan ere,



LANDER F. ARROIABE / ARGAZKI PRESS

nire ustez, prebarikazioa egon da, Zigor Kodeaz egin duen interpretazioa onartezina baita; baina hor gutxienez mamu bat dago. Gainontzekoetan oso argi dago.

■ **Alderdien Legearen aurka ere helegitea jarri du Jaurlaritzak. Modurik al dago helegite horrek aitzina egiteko?**

Ez dut helegitearen ñabarduren berri, baina uste dut neurri ona dela, orain Konstituzio Auzitegiak erabaki bat hartu beharko duen heinean. Ildo horretatik, ez dakit zer gertatuko den Konstituzio Auzitegiaren eta Auzitegi Gorenaren artean. Azken honek azkartasunez jardun beharko luke eta baliteke inkonstituzionaltasunaren eztabaida piztea. Horrela balitz, prozesua eten eta Kontituzio Epaitegira pasatuko litzateke afera.

■ **Zure tesiak hain argiak izanik, nola ulertzen da Alderdien Legea jasotzen ari den babesa?**

Jendea eztabaidatzen ari da. Agian gehiago unibertsitatean lan egiten dugun adituen artean. Nire ustez, Konstituzioak ez du onartzen Alderdien Legea. 22. artikuluan argi eta garbi esaten da zein den elkartzeko eskubidea eta ezartzen duen muga bakarra zigor legeria da. Hori da alderdiak bertan behera uzteko bide bakarra.

■ **Konstituzioaren 6. artikuluan omen dago koska.**

Bertan alderdi politikoen baitan egon behar duen errespetua jasotzen da, baina barne egituraz ari da eta ez kanpo jardueraz. Konstituzioak ezin du muga bat balitz bezala jardun. Gainera, inkonstituzionalak diren gauzak defendatzen duten bestelako alderdi politikoak ere badaude; esaterako, egun gobernuan dauden alderdiak hori egin zuen autonomien estatuaren aurka agertu zenean edo terroristek zigorra oso-osorik bete behar zutelako aipatzen zuenean. Hala ere, inork ez du pentsatzen Al-

### LEGEZ KANPORATZEA

«Ezin da Batasuna bertan behera utzi alderdikideen ardura penala frogatzen ez den bitartean»

### EGOERA POLITIKOA

«Denok berdin pentsatu behar omen dugu; jendea ideologikoki estutzen duen giro zakar batean gaude»

### BALTASAR GARZON

«Zilegitasun demokratikoaren printzipioa urratu du, bere borondate pertsonala nagusituz»

derdi Popularra legez kanpo utzi behar denik.

■ **Espainiako Konstituzioaren interpretazioan anbiguitasuna ez dagoela diozu. Dena den, oro har, ez dirudi horrela denik.**

Egun pentsamendu bakarraren giroa dago eta badirudi zaila dela desadostasunak onartzea. Jendea ideologikoki estutzen zaion giro zakar batean gaude eta denok berdin pentsatu behar dugula ematen du. Nire irizpideak, esaterako, ez ditu inork koherentziaz iharduki.

■ **Zure irizpideak 18/98 sumarioari ere aplikatzen ahal zaizkio?**

Ez dakizkit sumario horren xehetasunak; beraz, ezer ezin dut esan.

■ **Auzitegi Nazionala ez da jasotzen Konstituzioan. Ildo horretatik, nola ulertzen da hartu dituen neurriak?**

Auzitegi Nazionala ez da Konstituzioan jasotzen den botere judicialaren baitan ageri. Betidanik plazaratu den arazoa izan da hori. Dena den, bai Konstituzio Auzitegiak eta bai Europako Giza Eskubideen Auzitegiak irtenbide egokiena dela ebatzi dute. Beraz, Konstituzioaren baitan onartzen da.

■ **Datozen hauteskunderi begira Batasuneko ordezkariak ba al dute modurik berriro aurkezteko?**

Batasunaren suspentsioari eusten badiote, ez; ez Batasunaren izenarekin behintzat. Beste alderdi bat eratu beharko lukete edo hautetsien elkartearen bideari jarraitu beharko liokete. Iku-siko da zer gertatuko den.